

## OTOITZA ELKAR BIZITZAN

Paulo Agirrebaltzategi

Fedearen isuria baldin bada otoitza, eta gizona oso-osoa eta berorren erdigunera biltzen badu fedeak, otoitz mota ezberdinen artean ez dago erabateko banaketarik egiterik. Halere zenbait berezketa egin ohi da: Liturgi otoitza edo Elizaren otoitz ofiziala (Sakramenduak eta Orduen Otoitza bereziki) eta otoitz pribatua (nahiz eta taldean egin); ahozko otoitza eta gogozko otoitza... Hemen ez dugu bi lehengoen artean, ez beste bien artean berezketarik egingo; baina guri dagokigun bidetik eta eta haritik irten ez gaitezen eta alor zabalegian gal ez gaitezen, nolabait mugatu egin beharko dugu solasaldi honen gaia, eta hortarako bakarkako eta elkarteko otoitzak bereziko ditugu.

Honetan Ebanjelioari berari jarraitzen gataizkio, han ere bi otoitz mota horiek berezten bait dira. Bakarkako otoitza da Jesusek aipatzen duen hura: "Zu, ordea, otoitz egitekoan, sar zaite zure gelara, eta atea itxirik, egiozu otoitz zure Aitari izkutuan, eta izkutuan begira dadukazun Aitak emango dizu saria" (Mt. 6, 5-6). Eta nork bere gelako bakardadean egiten duena bezala, *bakarkako otoitza da Jesusek berak mendi tontorrean eta gau isilean egiten duena* (ik. Lk. 6,12); bakarkako otoitza da ere publikanuk sinagoga bazterrean egiten duena (ik. Lk. 18,9-14).

Testamentu Berrian agertzen da, ordea, beste otoitz motarik: elkartekoa, alegia. Jesusek eta berorren jarraitzaileek sinagogan eta tenpluan egin ohi zutena ezezik, lehen kristau elkartearen elkarteko otoitza oso adierazgarria dugu (ik. Apost. Eg. 2,42; 4, 23-31; 12,5). Elkarteko otoitzaz mintzatu behar dugu bereziki gaurko honetan. Liturgi otoitza da elkarteko otoitzik nagusiena

eta bikainena; baina otoitz pribatua ere izan daiteke elkarteko otoitz (familian nahiz kristau edo erlijiosoen edozein elkartetan egiten den otoitza elkarteko otoitza da, liturgiiazkoa ez baldin bada ere). Ahozkoa ezezik, gogozkoa ere izan daiteke elkarteko otoitza (elkarrekin egiten den meditazioak ez luke bakarkakoa izan behar).

Elkarteko otoitza esatean, bada, liturgikizunak ezezik, eta Orduen Otoitzaz gainera, kristau eta erlijioso elkartearen beste elizkizun eta otoitz mota asko ere biltzen dira: elkartean egiten den meditazioa, egunean zehar elkarrekin egiten diren zenbait ahozko otoitz, etab.

Berezketa guzti hauek, ordea, akademikoegiak bihurtu ohi dira sarritan, eta orduan, argiak ematen baldin badute ere, otoitzaren mami sakona axalekotu eta horren bizia moteldu egiten dute. Ebanjelioak berak ez du horrelako berezketa akademikorik egiteko joerarik: otoitza zerbait bizia da, eta bizitza osoa da otoitzerako deia. Eta gaur kristauarentzat eta baita erlijiosoentzat otoitzak agertzen dituen galderak eta prolema biziek ere ez dute akademikeriarik onartzen, bizitzak berak jartzen dituen arazo zorrotzak bigun eta indargabe bihur ez daitezten.

Otoitza bera galdekizun eta kezkarri agertzen bazaigu gaur kristauoi eta erlijiosooi, elkarteko otoitza bereziki astinduta gertatzen zaigu, arrotzen dizkiogun kezka eta arazoez; astinduta ezezik, minduta bezala ikusten dugu gaur elkarteko otoitza. Eta ez elizkizunak, edo liturgikizunen lege eta moduak edo beste elkarteko otoitz motak aldatuaz doazelako; hondo-hondotikakoak dira elkarteko otoitzari buruz egiten ditugun galderak. Eta horrexegatik geure kristau bizitzako muina bera erreminduta daramagula ematen du.

Ezinezkoa ez ote da elkarteko otoitza gure arteko urratuak eta etenak sendatu artean? Gizartean eta kristauon artean banatuta eta burrukan ari garen bitartean izan ahal daiteke benetakoa otoitzik? Elkarteko otoitza ez ote klaseen arteko, aberatsen eta pobreen arteko, indartsuen eta indargabeen arteko etena goxatzeko eta estaltzeko bide gertatzen? Ez ote da gizarteko eta Elizako zuzengabekeriak ahantzerazteko asmatu-rik tresna? Edota elkarteko otoitzaren erakuntza ez ote da gizarteko eta Elizako egoera eta egitura okerren agerpide eta finkabide?

Hauek ez dira nik orain asmatuiko galderak? Gure artean bizi-bizirik dabilta. "Nolatan joango naiz ni Mezatarara, egunero nire izerdia xurgatzen eta nire lana ustiatzen ari den horren mezatarara?", entzun ohi diogu bati. "Nik ez dut ordubetetako Mezatarara joan nahi, Meza hori herriko aberaskume eta jende "dotorearena da-ta", esaten dizu beste batek. "Zurikeria hutsa litzateke, aberatsok eta gu pobreak; ugazabok eta gu proletariok, agintariok eta gu zapalduok, elkarrekin otoitza biltzea"... Eta guzti hauek ez dira gaurko kezka eta galderak. S. Paulok berak ere eginak eta erantzunak zituen! "Ni erreminuta gelditzen naiz, eta ez dut jaunartzera joateko kemenik ere, gure parrokiako mezatan dena erderaz egiten dela, eta goxoki bezala edo, kantatxoren bat euskaraz tartean ematen digutela ikusiaz", esaten zidan lehengo egun batez emakume batek.

Gure gizarteko lanari bizi ditu gure elkarteko otoitzak, eta okerrago izango litzateke biziko ez balitu, bizitzatik aparte dabilela erakutsiko bait luke eta elkar bizitzako arazoetatik ihesegiteko bakarrik dela esango litzateke.

## I. Fedea - Otoitza - Kristau elkartea

Apostoluen Eginak liburuaren testu nabarmen bat aipatuaz hasiko gara:

"Eta haren hitza (Keparena) benetan hartzen zutenak, bataiatuak izan ziren eta egun haretan hirumilaren bat lagun elkartu zitzaizkien. Eta Apostoluen irakasbidean, senide batasunean, ogi zatitzean eta otoitzean zintzo irauten zuten" (2, 41-42).

Jainkoaren Hitza benetan onartzetik, fedetik, Bataioaren bidez sortzen da kristau elkartea: "Fededunen" elkartea da (Apost. Eg. 4,4), hain zuzen ere, kristauena. Fedea da kristau elkartearen iturria, muina eta oinarria.

Fedea ez da Jainkoari buruzko ideia batzu onartzea, ideia horiek Jainkoak berak emanak ditugulako onartzen baditugu ere. Fedea pertsonala dela esan ohi dugu. Eta bi aldetatik da pertsonala noski. Aurrenik, norbere burua oso-osorik lotzen du gizakiak fedearen bidez, eta ez alderdiren bat bakarrik (nahimena edo

adimena edo). Fedea ez da, beraz eduki dadukagun ondasunen bat, gizonok elkarbatu gaitzakeen ondasunen bat. Fedeak ez gaitu ideia edo sineskairen batzuen bidez Jainkoarekin lotzen: zuzen-zuzenean eta gure erdi-muinetik lotzen gaitu. Gizonarentzat kezkarik nagusiena, azken kezka, Jainkoa bihurtzen denean, orduantxe beste kezka eta gauza guztien barnean eta hondoan Jainkoarekin elkartzten da gizona. Hórra hor fedea! Honela bada, Jainkoarekiko atxikipen bezala adierazi genezake fedea; edo, J.M.R. Tillard-ek dioenez, "rendido acatamiento al absoluto de Dios" bezala (Exigencias de la fe en la Vida Religiosa, in: Vida Religiosa 36, 1974, 179. or.).

Bestalde, pertsonala bada fedea, ez da kulturazko zerbait. Erliziozko irakatsiak, ohiturak, errituak, etab. kulturazkoak dira, fedearen jantzia bezala, fedea agertzeko bideak. Fedea bera, ordea, sakonagoa da; norbere hondo-hondotik Jainkoari, baldintzarik gabe, atxikitzea da. Halere, fedea ez da kulturazkoaren, erlijiozkoaren, gizartezkoaren gaintik gertatzen den zerbait, horien barnean baizik. Horregatik fedearen jantzia baino hobeto, fedearen "sarea" deigenezake gizakiaren bizia, beronen alderdi guztietan.

Fedeak elkartasuna sortzen du: fededunak bere hondo-hondotik elkar aurkitzen dute Jainkoagan. Fedean geure muinetik helduak, geure barnetik "harrapatuak" garelarik, geure elkartasunaren sustraia, oinarria eta sakona, heltzen eta harrapatzen gaituen Jainko horrengan aurkitzen dugu. Horregatik fedea ez da norberak Jainkoarekiko duen harreman bakarrekoren bat; fededun guztiok elkartzten gaitu fedek.

Halere fede elkartasuna eta fede elkarteak berezi behar ditugu: elkartasuna harremana da; elkarteak, berriz, egitura da. Nolatan sor lezake, orduan, gizonen muinean eta hondoan gertatzen den fedek ageriko gizarte egiturarik? Nola sor lezake kristau elkarterik, Elizarik?

Fedea ez da gizonen fede, agerpide batzuen bidez agertzen ez baldin bada; eta agertu ere, elkarte batetan agrtzen ez baldin bada. Gizonak ez du federik, fede hori nolabait "esaten" ez duen bitartean. Eta fedea esateak, azaltzeak, adierazteak, giza-elkarteak sortzen du, fede elkarteak. Fedea aitortu beharra daduka gizonak bere fede esperientziaren jabe izateko eta ukan ere ukaiteko

federik. Fede isila, fede hila! esan genezake.

Fede aitortenak sortzen du kristau elkarteak, hau da, Kristogan eta Kristoren bitartez Jainkoa aitortzeak sortzen du kristau elkarteak, Eliza; Kristogan finkatzen bait da kristau fedea; Kristoren presentziaren aitortpena gertatzen da gure fedearen seinale.

Agerpide ugari ditu fedea, eta, hain zuzen ere, kristauaren bizitza osoak izan behar du fedearen agerpide. Lehen ekarri dugun testuak ematen dizkigu lehen kristau elkarteak fedea eta fede elkartasuna adierazteko eta mamitzeko zituen agerpideak: Apostoluen irakatsiak entzutea eta gordetzea, senide batasuna (lehen kristauen artean ekonomiazko elkartean azaltzen da bereziki), Eukaristia eta otoitza. Kristau bizitzak eta kristau elkartearen edo Elizaren egitura osoak fede horixe agertu behar du.

Otoitza da fedearen agerpideetan zuzenekoena eta nagusia. Izan ere, otoitzak, Jainkoari ematen zaion "izpirituzko eta benetako" gurtza den otoitzak (ik. Jn. 4,23), gizonaren muineko fede hori, Jainkoarekiko atxikipen hori bizierazten du. Fedezko harremana hori elkarriketa honen esanahi zabalean hartuaz) bihurtzean, otoitza gertatzen da. Eta otoitzaren bidez dute kristauak beren bizitzan eta kristau elkartearen eta egitura eta iztituzio guztietan beren fedezko sakontasunaren kontzientzia eta esperientzia. Fedearen sustraira jotzen du otoitzak, eta horrelaxe, gure fedea mantendu, eratu eta indartu ezezik, gure fedearen egia edo gezurra agertzen du.

Fede elkartasuna, ordea, otoitz elkarte bihurtzen da: horrexegatik da hain garrantzi handikoa elkarteko otoitza. Hasiera-hasieratik Eliza, Jesukristoren esanari zintzoki lotuaz, elkarteko otoitza bere eginkizun eta agerpide nagusitzat hartzen du; lelo bat bezala datorkigu Apostoluen Eginak liburuan zera hau: "otoitzean zintzo irauten zuten" (2,42; ik. 1,14; 6,4).

Elkarteko otoitza da fedearen elkarrekiko aitortpenik nagusia eta beharrezkoa. Edozein otoitzek, fedearen agerpide denez, Jainkoarekiko eta gizonen arteko elkartasuna agertzen du. Serafin Matellán-ek dioen bezala: (La oración) "es la orientación de la vida a Dios y a los hermanos, la existencia abierta a la comunión con Dios y con los hermanos, la consciente voluntad de servicio

y amor a Dios y a los hermanos" (Hacia nuevas formas de vida religiosa, Instituto teológico de vida religiosa, Madrid, 145. or.).

Edozein otoitzek, fedearen arnasa denez, elkartearrekiko irtenbidea baldin badu, elkarteko otoitzak agertzen du batez ere fede elkartasun hori: fede elkartasuna esan egiten du, zuzenean adierazi egiten du elkarteko otoitzak.

Baina elkarteko otoitzak ezingo du fede elkartasunik agertu eta mamitu, beste agerpideekin batera ez baldin bada. Ondo ulertu zuten hau lehen kristauak: elkarteko otoitzean ezezik, elkarteko ondasunetan eta bizitzan adierazi zuten beren fede elkartasuna. Bestelan aidean gertatzen da elkarteko fedea, bizitzako sustrairik gabe, eta agian bizitzako etenen eta hausturen estalgarri hutsa. Elkarteko otoitza da behin eta berriro, Jainkoaren aurrean, benetako elkarteko bizitza aukeratzen den unea.

Honela dio B. Besret-ek (La oración: polifonía de expresiones, in: Concilium 79, 1972, 375. or.): (La oración comunitaria) "ocupá un lugar importante en la experiencia cristiana en la medida en que ésta une indisolublemente la comunión con Dios a la comunión de los hombres entre sí. Cuando los cristianos se reúnen para orar en común, buscan manifestar y hacer emerger a nivel de su conciencia el misterio que viven, y que es al mismo tiempo comunión entre hermanos, comunión en el mismo espíritu y, en última instancia, comunión con Dios".

## 11. Otoitza elkarbide bezala

Erljijosoen bizitza elkarteko bizitza da. Kontzilioak berak, Perfectae Caritatis Dekretuan, 15. zenbakian, honela ikusten du: (Erljijosoen) "elkarteko bizitzak lehen garaietako Eliza du bere eredu, bihotz bat eta gogo bat bait zuten fededunek (Apost. Eg. 4,32); elkarteko bizitza horrek, Ebanjelioaren irakatsiak, Liturgia sailduak, eta, bereziki, batasunean iraun behar du (Apost. Eg. 2,42)". Erljijosoen elkarteko bizitzak lehen kristauengan eredu aurkitzen duen bezala, gaurko kristauen elkarteko bizitzaren eredu izan beharko luke harek.

Erljijosoen elkarteko bizitzak fedea du bere oinarria eta

sakona; horregatik otoitzean, elkarteko otoitzean bereziki, azalduko da erlijiosoen elkar bizitza. Otoitzak jartzen du erlijiosoen elkar bizitza. Otoitzak jartzen du erlijiosoen elkartea bere elkartasunaren iturriaren aurrean: Jainkoaren aurrean. Honela dio lehen aipatu dugun Matellán-ek: "Ahora entendemos ya que la oración comunitaria es necesaria a toda comunidad religiosa, y, acaso, que la oración comunitaria es lo que constituye la comunidad religiosa en cuanto comunión de fe convivida, de amor convivido y de experiencias convividas, porque la oración comunitaria es donde y cuando se cree, se mantiene y se intensifica esa convivencia" (ibid. 148. or.).

Lehen, erlijioso bizitza osoa, komentuetako bizi modua eta elkarrekiko harremanak, dena fede giro bat sortzeko eta fede bizitzeko eratua zegoela zirudien. Gure bizitzan ere sekularizazio bat gertatu dela argi dago, hau da, erlijiozko bizi eta joera molde haiek galduak ditugu. Halere erlijiosoen bizitza "sekularizatu" honen oinarria fede baldin bada, mintzabide batzua aurkitu beharra daduka fede honek. Fede elkartea den erlijioso bizitza "sekularizatuaren" berrikuntza elkarteko otoitzaren berrikuntzatik hasi beharko dugu; eta ez erlijiozko molde galdu batzuen orde besterik ez dagoen molde batzuk jarriaz: barrenetik, eta ez albotatik, hasi behar du erlijiosoen fede elkartearen berrikuntzak, hau da, elkarteko otoitzetik. Hontatik abiatu direla dirudi azken Kontzilioaren ondoren abiatu diren erlijioso elkartearen berrikuntza jatorrenak eta bikainenak: elkar bizitza eta elkarteko otoitza jatortzetik.

Zertan datza, ordea, elkarteko bizitza jator bati erantzungo dion elkarteko otoitzaren jatortasuna? Elkarteko bizitza biztu, sakondu eta sendotu behar du benetako elkarteko otoitzak.

Elkarteko otoitza era ezberdinetan egin daiteke: talde handi batek, ongi eraturiko elizkizun edo otoitzaldia andikiro egiten duela, eliza eder batetan eta koru on batek edo jendetalde osoak kantatzen duela, honela erlijiozko eta estetikazko giro eder bat sortuz: edota ikus daiteke elkarteko otoitza, ezarri zaigun lege bat betetzea bezala: legeari zor diogun leialtasunagatik, ahal den zuzenen edo nolabait bakarrik, legez agindutako eta emandako otoitzak esaten edo egiten saiatzen gara; bi otoitz modu hauen kontra edo, eta elkarteko otoitza berotzearen eta jatorragotzearen, gaurregun bada joerarik elkarte txikiak biltzeko, beren

artean otoitza antolatzeke, eta egitura eta legeei horren herstu begiratu gabe, behin eta berriro otoitza sortzeke, honela elkarteko otoitza benetan norbere otoitza bihurtu nahian eta otoitz giro bero eta goxo bat sortuaz.

Aurreneko biek ezezik, hirugarren honek ere badu arriskurik elkarteko otoitza eguneroko elkarteko bizitzaren gorabeheretatik berezteko, elkarteko otoitza itxiune bat bihurtuaz: hau da, elkarteko otoitza bizitzak berak emana izan beharrean eta bertatik sortua, legea betetzeari begira edo erlijiozko giro eder bat edo giro goxo eta bero bat sortzeari begira, bizitzatik aparteko otoitz giroa sortzeke arriskua dute; elkarteko bizitzarekiko benetako loturarik gabe, alegia. Otoitzean bertan gelditzeko arriskua dute, elkarteko bizitzatik abiatu gabe eta elkarteko bizitzaratu gabe. Guzti hau ez da asmatua, ez erlijioso elkarte tradizionaleri buruz, ez eta kristau edo erlijioso elkarte berri eta txikiei buruz: guretariko bakoitzak bizi dugun arriskua eta mina dugu.

Baina elkarteko otoitzak, legea betetzera edota giro eder edo goxo bat sortzera baino areago, eguneroko elkarteko bizitzan sustriturik, hor gertatzen zaizkigun gorabeherak aztertzeraz, hor ditugun etenak eta minak sendatzera, hor ditugun aserreak erretzera jo behar du: elkarteko bizitzak dituen gorabeherak beraiek nabarmendu eta agertu behar ditu elkarteko otoitzak, ihesbide bat izango ez baldin bada, eta gure eguneroko banaketan eta etenen estalgarri goxo bat izango ez baldin bada. Zurikeria gertatzeko arriskua du beti gure elkarteko otoitzak.

Egunero sortzen dira elkarteko bizitzan banaketak eta etenak, hasarreak eta dibisioak, tirabirak eta susmo txarrak: nahiz gizarte, nahiz politika mailan, Eliz mailan nahiz sinesmen mailan, lagunarte mailan nahiz norbere barnean. Elkarteko bizitza, ondasun, ideia, lan eta jan elkartasunak osatzen baldin badu, elkarteko otoitza ere alderdi guzti horiek mamitu behar dute, aparteko giro bat sortu gabe. Elkarteko bizitzaren osotasun hortatik, fede elkartearen sorburu, oinarri eta helburu denarekin lotzen gaitu elkarteko otoitzak.

Horregatik elkarteko bizitza osoko urratuen eta etenen ispilu eta sendagarri izan behar du elkarteko otoitzak. Honek ez du izan behar bizitzako tirabirak, burrukak, urratuak eta etenak



estaltzeko, nabarmentzeko baizik, agirian jartzeko; elkarteko otoitza dugu gure arteko arazoak eta minak zorrozteko eta barne-barnetik gure dibisioak kritikatzeko unea, eta ez horiek gezurrez goxatzekoa; elkarteko otoitzak geure arteko urratuak eta etenak ahantzerazi eta bigundu eta leundu beharrean, erre egin behar ditu, Jainkoagandik datorkigun maitasun suaz; orduan bakarrik, gure arteko arazoak beren mingarritasunean harrapatzen ditugunean, eta ez zurikeriaz zuritu, orduan izango da benetako elkarteko otoitza gure urratuen eta zaurien sendagarri eta xamurgarri.

Elkarteko otoitzak sustraitik heldu behar dio gure elkarteko bizitzari eta hemen gertatzen zaizkigun etenei eta banaketei; honela bakarrik lortuko du batasuna sakontzea eta finkatzea. Elkarteko bizitzako maila eta alderdi guztietan sortzen diren indar banatzaileen kontra, fede beretik sortzen indar batzailea jartzen du otoitzak. Elkarteko otoitzean agertzen dugu gure fedearen sakontasunaren, alde batetik, eta, bestetik, gure eguneroko eta azaleko kezka, eginkizun, asmo, gertakari, balio eta egite guztien arteko lotura. Otoitzak berez izan behar du fedea bizitzaratzten duena. Sakonbidea dugu otoitza, gure elkarteko bizitzan, gure harremanak azalean geldí ez daitezen: hau da, fede elkarte dela esaten dugun hori, elkarrekiko lanetan, edo elkarrekin bazkaltzean edo telebista ikustean edo elkarrekin ikastean edo bilera egitean hustu ez dadin. Guzti hauek gure elkarteko bizitza eratzen eta osatzen baldin badute, elkarteko otoitzak guzti horiek "mamitzen" ditu, horien azken muina eta azken fedezko esanahia agertaraziaz; honela elkarteko bizitzaren sakonera, hondora, oinarrira eramaten gaitu otoitzak, geure elkarteko bizitzaren sustraitik edaneraziaz.

Elkarteko otoitzean, Jainkoari eta elkarri, batasuna eta senidetasuna hautsi ditugulako barkapena eskatzea, edo gure kezkak eta ametsak agertzea, edo gure pozaldia komunikatzea: guzti honek garamazki geure fede elkartasunaren iturrira. Horregatik guzti horrek elkarteko otoitzean presente egon behar du, otoitz hori ihesbide bihurtuko ez bada, eta bai elkarbide konkretu eta bizi.

Baina elkarteko otoitzak ez die elkarte txikian gertatzen diren urratuei eta etenei bakarrik begiratu behar, horiek agertzeko, astintzeko, erretzeko, sendatzeko, eta batasuna sakontzeko eta

batasuna (sakontzeko eta) finkatzeko; fede elkarteko biritza ezin daiteke elkartasun itxia izan, ez eta elkarteko otoitza ere; irekia izan behar du. Gizartean edo gure herrian, Elizan edo mundu zabalean gertatzen diren urratuak eta etenak, geure fede elkartea mintzen dute, eta horrexegatik gure elkarteko otoitza ikutu eta zulatu behar dute. Elizaren eta Herriaren dinamika bereganatu behar du erlijioso edo kristau elkartearen otoitzak.

Honela dio B.Besret-ek: "... si montamos una oración comunitaria, ésta será tal en la medida en que estemos dispuestos a construir juntos un mundo en el que seamos todos hermanos, y donde la realidad de nuestra comunión les dé su sentido a los signos que vamos poniendo" (Liberemos la oración, in: Un riesgo llamado oración (elkar lanean), Ed. Sígueme, Salamanca, 1974, 57. or.). Elkarteko otoitza sortzeak berekin darama gure artean eta gure herrian eta gure munduan elkartasun eta senidetasun berri bat sortzen saiatzea. Erlijioso edo kristau elkarteak asmo hauek teoria hutsean eta aidean ez erabiltzeko, benetan ireki beharko lukete beren elkarteko otoitza, horretara beste elkartee-tako, herriko edo Elizako kezka, minak, urratuak eta etenak ekarri nahi dituztenentzako. Gezurrezko otoitza litzateke, kanpo-ko prolemek eta gorabeherak kutsatuko duten bildurrez, elkar-te itxian eta txikian berotu nahi den elkarteko otoitza. Ausarta izan behar du otoitzak elkarteko eta inguruko benetako arazo eta galdera zorrotzei buruz, ez ihesbide eta ez estalgarri; eta inola ere ez zurigarri.

### III. Elkarteko otoitzaren eragozpenak

Ez dut hemen elkarteko otoitza nola eratu beharko litzate-keen xehetasunik emango. Baina gure artean aipatu ohi diren eta dauden kezka eta eragozpen handienak aipatuko ditut, nolabait sarrerako azkenaldian jarritako galderei ere erantzun nahian. Teo-riaz bada ere, elkarteko otoitzak jatorra izateko gure artean izan ohi dituen aitzakiak eta arrazoinak argitu beharra dadukagu, otoitzaren beraren esanahia gogoan dugularik.

Lau kezka, galdera eta eragozpen aipatuko ditut hemen:

1. Otoitza burgesen kontua da, beraiek bait dute otoitzik egiteko astirik ere. Nolatan langile eta pobre batek horietako batekin parte hartu elkarteko otoitzean?
2. Gure elkartean otoitza erderaz bakarrik, edo batez ere erdaraz egiten da, gehienak euskaldunak baldin bagara ere. Hori ez ote da euskalduna zapaltzeko beste era bat?
3. Gure herrian burrukalariek eta iraultzaileek otoitza alde batetara utzi dute. Otoitza situazio eta egoera baten eustzaileen arnasa ote da?
4. Politika aldetik, Eliza barnean eta bestelako pentsakera eta jokabide aldetik oso ezberdinak gara gure parrokian edo elkartean. Bil ahal gaitezke benetako elkarteko otoitzean, ala ez ote da hori gure ezberdintasun zorrotzak estaltzea eta zuritzea?

Oso sakondu gabe ere, lau kezka eta galdera modu hauei buruz zenbait gogoeta egiten saiatuko naiz hemen.

1. Pobreak eta langileak aski du bere lanaz eta bizibeharraz kezkatu... Ez du bestetarako astirik! Burgesak izango lirateke bere bizibidea moldatuta dadukatenak. Hauen artean izango ginateteke erlijiosook ere.

Aberastasunaren eta lasaitasunaren bidez definitzen da, bada, burgesa. Proletarioak eta pobreak ez luke otoitzik egiteko betarik. Eta horrezaz gainera haiek moldaturiko otoitz modua, hitzak eta egitura irain gertatzen zaizkio pobreaki eta larritasunean bere bizitza bizi duenari.

Meza hori aberatsena da: guztiak dotore jantzita ikusiko dituzu hor; beren gizarte eta diru maila agertu nahi dute nonbait... horrelakorik entzun ohi da.

S.Paulok ere ezagutu zuen horrelakorik, eta arrazoina eman zien pobreei. Aberatsek eta "burgesek" monopolizatu egin dute nonbait otoitza; eta pobreek ez dute beren lotsarako besterik parte hartzerik horrelako elkarteko otoitzean.

Baina burgesek, astea bizi direnek, aberatsek... ez dute berenez otoitzerako irtenbiderik. Pobreakena da berez otoitza. Fedea Jainkoarekiko irekimena da; horregatik otoitza bera pobretasun seinalea da. Jainkoaren aurrean norbere pobretasuna

adierazten duenak bakarrik daduka otoitz egiteko modurik. "Aberatsaren", "burgésaren" otoitza itxia da eta gezurrezkoa: bere asetasunaren estalgarri besterik ez ...

2. Kultura baldin bada nork bere nortasuna osatzeko giroa eta bidea, eta hizkuntza bada kulturaren agerpiderik eta iturririk nagusia, hizkuntzak garrantzi handia du otoitzean. Otoitzak, fedearen arnasa denez, barne-barnetik eta oso-osorik hartzen du gizona. Horregatik otoitza eta norbere hizkuntza norbere nortasunaren muinean gertatzen dira eta elkar aurkitzen.

Gauza bat da zerbait ulertzea eta nolabait ulertaraztea; besterik, ordea, norbere hondo eta muina adieraztea eta agertzea. Horregatik otoitzean bereziki, badu garrantzi handirik norbere hizkuntzak. Horra hor zergatik gertatzen den inon baino mingarriago elkarteko otoitzean besteren mintzairan mintzatu beharra. Fraide baten "Korupeko salmoak" datozkit gogora: haren anaia fraideek —gehienek euskaldunak— koru handian erderaz Jainkoari beren otoitz handia esaten edo kantatzen dioten bitartean, bestea korupeko iluntasunetik ari zaio garraxika Jainkoari, euskaraz bere barnea agertu nahian. Elkarteko otoitzean ez da azaleko gauza zein hizkuntza erabiltzen dugun.

Are mingarriago gertatzen da bi hizkuntzen gizarteko harremana —bata nagusi eta zapalbide eta beste zapaldua eta heriotzbidean— otoitzera aldatzen denean. Orduan hizkuntza bera ere zapaltzaile gertatzen bait da, eta, beraz, elkartearen hausle; eta, ondorioz, sasi-otoitz.

3. Ezaguna da nola, Elizaren barnean eta gizartean ere, dagoen egoera baten zaleak eta eusleak, horren kontra dabiltenak, berri-zaleak eta iraultzaileak, otoitza alde batetara utzi dutela salatzen dituzten.

Baina galdetu beharra dago —hori egia izanik ere— ez ote diren horrezaz beren baitan pozten. Hain zuzen ere, situazioaren eusle bihurtu dute Jainkoa, ordena baten finkatzaile: eta Jainko horri zuzentzen dizkiote beren otoitzak. Monopolizatu egin dute Jainkoa eta otoitza, beren iritziei, mundu ikuskerari, interesei eta asmoei egokituaz. Orduan nahiago dute berrizaleek eta iraultzaileek eta burrukalariek otoitzik ez egitea, horiek errazago salatu ahal izateko.

Baina okerrena da burrukalariak eta iraultzaileek beraiek, etsaiek jarritako azpikerian erori egin direla. Hain zuzen ere, berentzakoak luketen harma handi bat etsaien eskuetan utzi dute: otoitza, alegia. Eta alde batetara utzi dute, otoitza atzerakoien kontua balitz bezala.

Alderantziz, otoitzaren jabe inor baldin bada, berrizalea, aurrerazalea eta iraultzailea da; eta ez egoera bat absolutu bihurtu nahi duenarena, ordena bati behindabetikoa balitz bezala, eutsi nahi dionarena. Honek ez du itxaropenik; otoitza, berriz, itxaropendunarena da. Jainkoak beti ematen ditu ustegabekorik: ustegabekoren baten zain dagoenarena da otoitza; sarritan otoitzean bertan eskatzen dugunaz aparte, sorpresak ematen dizkigu Jainkoak. Berrizalea bait da Jainkoa; eta otoitzean, hau fedetik sortzen den neurrian, ez gara otoitzaren formulatan beraietan gelditzen, otoitza bera ez dugu absolutu bihurtzen, ez bait dakigu otoitz horren atzetik zein berri ekarriko digun Jainkoak.

Berrizaleari, iraultzaileari dagokio benetan otoitza...

4. Pentsakera, iritzi eta jokabide ezberdinek autsi ote lezake elkarteko otoitza? Berdintasuna beharrezkoa ote elkarrekin otoitz egiteko? Berdintasuna berdinkeria gertatu ohi da sarrienetan gure gizartean, eta, orduan, zapalkuntza bihurtzen da.

Ohiturak, pentsakerak, iritziak eta jokabideak kultura mailan gertatzen dira, eta ez fede mailan. Otoitza, ordea, fede mailakoa da, kulturaren barnean gertatzen bada ere. Kulturazko alderdi guztiek osatzen dute gizonaren eta elkartearen bizitza; baina bizitza hau "konfiguratzeko" duena fede da. Eta otoitza, konfigurazio honen muinean gertatzen da. Horregatik, osotasun horren elementuak diferentek izanarren, guztiak konfiguratzeko dituen, fede, berdina izan daiteke. Eta, beraz, otoitza posible da.

Alderantziz, politikazko, gizarteko, Eliza mailako ezberdintasunak ukatzen direnean eta berdinkerian erori, otoitza bera sasi-otoitza gertatzen da. Pentsakera, ohitura edo jokabide bat absolutu, sasi-jainko bihurtzen da orduan, besteak ezereztuaz; eta sasi-jainko hau sinesten da, eta horrixeko otoitzegin.